

PRENTSA-DEIALDIA

UEUko [Ekonomia Sailak](#) bi hitzaldi ireki antolatu ditu Eibarko Udako Ikastaroetan, "[Lidergoa, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak](#)" ikastaroaren osagarri gisa:

- **BIHAR** Uztailaren 3an, arratsaldeko 17:30etan, Eibarko UEUren Ikastetxe Nagusian (Markeskoa) [Galder Guenagak](#) UEUko Ekonomia saileko kideak eta UPV/EHUko irakasleak "[Lidergoa, emozioak eta fluxua erakundeetan](#)" izeneko hitzaldia emango du.

Hitzaldia irekia eta doakoa da.

Eider eta Arrate Rodriguez Zuloak dokumentalaren sormen prozesuaz aritu dira UEUko 41.Udako Ikastaroetan

Zuloak film-dokumentalaren inguruko hitzaldi batekin ireki da "Transmedia Kontakizuna" ikastaroa, UEUko 41. edizioaren barruan. Eider eta Arrate Rodriguez, proiektuaren sorkuntza eta honen garapenaren inguruan aritu dira bi orduz, ideia originala azaltzen hasi eta bidean topatutako oztopo eta ezustekoak kontatuz.

"Transmedia Kontakizuna" izeneko ikastaroaren antolatzaile den Edorta Aranek aurkeztu ditu Zuloak dokumentaleko parte diren Arrate eta Eider Rodriguez. Hauek, Zuloak proiektua nola jaio eta garatu zen azaldu dute, beraiek bidean bizitako bizipenak kontatuz eta beraien momentuan inspirazio bezala erabilitako erreferentzia ugari erakutsiz.

Eider Rodriguezek (gidoilaria) hartu du lehen hitza eta gogoratu du Fermin Muguruza (zuzendari eta gidoilaria) lehenbiziko aldiz ideia huts batekin joan zitzaionean: rockaren munduko emakume euskaldunen eszena musikala erakustea. Horrela hasi zen gaur egun Zuloak fikziozko dokumental dena. Eiderrek azaldu du zeintzuk izan ziren hasiera batean proiektuak jarraituko zituen ardatzak eta aitortu du pare bat hilabetetan bukatuta edukitzea espero zuten lana, urte eta erdira luzatu zela.

Behin, Eider eta Fermin gidoian lanean hasita zeudela, dokumentalari forma emanez Arrate Rodriguezen (Zuloak dokumentaleko protagonistetako bat) eskuetan utzi zuten "alde artistikoa". Arratek komentatu du bere lana izan dela taldeko emakume musikariak topatzea eta garrantzi handia eman ziola, momentu oro, hauen estetikari. Beraien nahia zen neska hauek ezagunak ez izatea eta horretarako internet bidez hasi zen Arrate taldeko partaideak topatzen: Youtube, sare-sozial ezberdinen bitartez etab. Eiderrek gehitu du "ahoz-aho" eta "herriz-herriz" ere ibili zirela, beraien ideiera moldatzen ziren neskak topatzen.



ueu

udako
euskal unibertsitatea

Arratek aitortu du, produkzio fase honetan bideo eta musika erreferente ugari erabili zituela inspirazio moduko oinarri gisa eta Ferminekin etengabe e-mailak bidaltzen aritu zela, abestiak pasatzen eta bideo ezberdinak partekatzen.

Hau guztia ilustratzeko, beraiek, beraien momentuan erabilitako bideo batzuk jarri dituzte, horien artean: PJ Harvey-ren 'Rid of Me', Orson Welles-en 'F for Fake', Banksy-ren 'Exit through the gift shop' etab.

Ondoren, Zuloakeko soinu bandaren sortzailearen inguruan hitz egin dute. Eiderrek aipatu du musikari honek anonimatan lan egiten duela eta hori dela eta, ezin duela bere izena zein den esan. Gauza aipagarri bezala esan dute, alde batetik musikari anonimo honek 10 abestiko maketa bat konposatu zuela eta beste alde batetik, Arratek taldeko partaideak topatu zituela, ondorioz, taldeko musikariek ez zuten inolako esku-hartzerik izan musikaren eraketa prozesuan.

Gero, Arratek azaldu du, modu xelebrea eta bizitako momentu eta egoera ezberdinak gogoratuz, nola izan zen taldeko neskek batzen joatea: Izaskun Muruaga, Ainhoa Unzueta, Tania de Sousa etab. Behin taldea sortua zegoela, Eider eta Ferminek gidoian lanean jarraitzen zuten eta konturatu ziren dokumentalaren zati ezberdinak lotuko zituen "hari gidari bat behar" zutela. Kanpoan topatzen hasi ziren arren, azkenean hari gidari hori Arrate izatea pentsatu zuten eta hau hasiera batean "flipatuta" gelditu zen arren eta Fermin eta Eiderrek eskatzen ziotena ondo ulertzen ez zuen arren, baiezkoa eman zuen eta horrela bihurtu zen Zuloak dokumentaleko protagonistetako bat. Hortik aurrera grabaketa prozesua eman zen non, beste gauza batzuen artean honako hauek jaso ziren: Zuloak taldeko neskei elkarrizketak eta jarraipena, Arratek San Frantzisko hirian grabatutako bideo faltsua, Euskal Herriko musikaren munduko emakume ezberdinei elkarrizketak etab.

Proiektua martxan jarri zenetik, bukatu arte, urte t'erdi pasa zen eta gaur egun, lan prozesu honen fruitu bezala Zuloak izeneko dokumentala daukagu, dokumental faltsua. Baina gauzak ez dira horretan gelditu, ez da soilik film bat sortu. Hasiera batean benetan existitzen ez zen Zuloak musika taldea errealitate bat bihurtu da, kontzertuak ematen dituen musika talde bat.

Gorputz jipoituen tratamendua euskal literaturan "emakume idazleek subjektu bezala gutxiago idazten dute genero indarkeria eta tratu txarrei buruz"

Gorputz maltratatuak gai orokor gisa hartuta, "Gorputz jipoituak, genero indarkeriaren sinedoke" izenburuarekin eskaini du Gema Lasartek UEU 41. edizioko Udako Ikastaroetan eman duen saioa. Idazle Errenteriarrek 2011. urtean "Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean" tesia aurkeztu zuen eta UEUk eskaintzen duen "Gorputza eta generoa euskal kulturaren eta literaturan" ikastaroan parte-hartu du irakasle bezala. Ikastaroaren helburu nagusia era dinamiko eta didaktiko batean euskal literaturan eta kulturaren emakumeek subjektu bezala euren gorputza nola ikusi eta ikustarazi duten azaltzea izan da. Horri buruz eta saioaren inguruan berarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Lehenbizi arretea deitu digu Gemak bere saioari jartzen zion izenburuak. Bertan "sinedoke" hitza azaltzen da. Ikastaroaren edukia kontuan hartuz eta berak jardun duen gaiari egokituz, gorputz gaizki tratatuak, mutilatuak eta jipoituak azaltzeko erarik egokiena sinedoke bat bezalako figura erretoriko bat erabiltzea pentsatu zuen. Azken finean, genero indarkeria gorputz jipoituak eta hori baino gehiago direla azaldu nahi baitu.

Emakumeen gorputzak nola irudikatu izan diren izan da ikastaro horretako gai garrantzitsu bat; izan ere, gehienbat gizonetzko ahotsetatik deskribatuak izan dira, batik bat euskal literaturan.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai
Tel.: 629 48 24 74
komunikazioa@ueu.org



udako
euskal unibertsitatea

Gemak azterketa hori burutu ahal izateko ikastaroan bereziki gizonezkoen obrak aztertu ditu, horien artean Anjel Lertxundi, Iñaki Frieria eta Xabier Montoia. Helburua biktima hori nola azaltzen zuten aztertzea izan da.

Emakume idazleek subjektu bezala emakumeari buruz normaltasun osoz idatzi izan dutela adierazi digu. Halere, bere tesiaren ondorioetako bat genero indarkeria emakumeek maite ez duten gai bat dela izan da. Gizonezkoak gehiago ausartzen dira genero indarkeria edo tratatu txarrak tratatzeko, eta emakumeen artean oso gutxi tratatu izan den gai bat da, beldur asko diotelako gai horri. Aldiz, indarkeria sinbolikoaz gehiago idatzi da, modu inplizitu batean agertzen da gehiago, nahiz emakumeen obretan nahiz gizonezkoenetan. Horren arrazoi bezala indarkeria sinbolikoz betetako gizarte batean bizi garela adierazi du Gema Lasartek, "Baina hori ikusi egin behar da, beturrekoak jarri behar dira, genero ikuspegitik ikusi behar dira".

Bukatzeko, euskal kulturaren gorputz jipoituek izandako bilakaeraz hitz egin du Gemak. Horretarako, Golgota eta Tango urdina eleberriak azpimarratu ditu, bere ustez proposamen ezberdinak direnak. Biak gerra garaiko eleberriak izanik bietan agertzen dira momentu hori pairatu zuten emakumeak, eta indarkeria egoera hori gainditu duten emakumeak.

Izotz Garcia: "Hezkuntzak eman beharko lituzkeen baloreak ematen ditu antzerkiak"

Hanka soina, korrika-saioak eta garrasiak izan dira gaurkoan ere Eibarko Markeskuan, UEUren Udako Ikastaroen baitan. *Irakaskuntzarako antzerki-teknikak: landu sormena, komunikazioa eta talde-estrategia* izenburupean eta Izotz Garcia Garciaren gidaritzapean, irakaskuntzan eta hezkuntzan elkarbizitzarako baloreak ikasten ari dira modu dibertigarri batean.

Bigarren eguna izan dute gaurkoa eta Izotz Garcia gustura da bere taldearekin. Talde txikia da baina antzezteko nahikoak baitira. Hala ere, hasierako lotsa puntu hori galdu artekoa izaten bada ere, lehen unetik inprobisazioaren laguntzaz inguruan aurkitzen duten pertsonaia eta egoerak antzezten ari dira ikastaroan.

Sormena lantzen ari dira batez ere ikastaroan: "Lanketa prozesua egiteko aitzakia txiki bat eskaintzen zaie lehen momentuan eta ondoren istorio batek dituen gainontzeko elementuak osatzen doaz; pertsonaiak lantzea, denboran aurrerako gertakariak eta bukaera ematea". Elkarren arteko komunikazioa beharrezko izan dute bata bestearen ideiak kontuan hartu eta elkarren artean, talde lanean, antzezlan txiki horiek osatzeko edo sortzeko.

Izotz Garciarentzat garrantzitsua da irakaskuntza antzerkigintzarekin lotzea. Antzerkiak ematen duena edo prozesuan ikasten denak bizitzako beste hainbat esparruetara eraman daitekeela uste du eta hori da ikastaroan erakutsi nahi diena. Antzerkia elkarren arteko errespetua eta elkar ulertzea bideratzen duen lan talde batek eginiko istorioa da. Gaur egun orokorrean antzerkia planteatzen den moduan elkar ulertzearen eta errespetuaren baloreak ez direla azaleratzen uste du Izotz Garciak, izan ere, bere ustetan: "Jar zaitez hor, ikasi ezazu hau eta egon zaitez geldik moduan erakusten da antzerkia". Modu horretan erakusten dena, "antzerkia egin; egin zaitez famatu", ideia dela dio Izotz Garciak.

Prozesu guzti honekin irakasleak dioten bezala, hezkuntzak eman beharko lituzkeen baloreak zabaldu nahi ditu Izotz Garciak: "Posible bada txiri-txiri batzuei behintzat pentsaera aldatzea nahiko nuke".

BIHARKO AGENDA. Uztailak 3, Asteazkena

Prensa-harremanetarako: Idoia Torregarai
Tel.: 629 48 24 74
komunikazioa@ueu.org



Hezkuntza sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta gakoak

09:00-17:00

udako
euskal unibertsitatea -Gaiak:

- Hezkuntza sistemaren historia laburra.
- Egungo sistemaren gaineko hausnarketa. Baloreak: agerikoak eta ezkutukoak. Hezkuntza sistemak eta ideologia.
- Eskola errealitate konbentzionalarekiko diskurtso kritikoa.
- Heztea vs adoktrinatzeta. Hezitzailearen funtzioa..
- Hezitzaile-ikasle arteko harreman demokratikoa. Autoritatea vs autoritarismoa. Ezkutuko boterea.
- Sozializatzea, eskolatzea?
- Haurrak berezkoa du ikasteko gogoia. Ez diezaiogun jakin mina hil. Haurraren interesetatik abiatutako kurrikulum-a.
- Hezitzailearen egitekoa, haurrak berezkoa duen hazkuntza prozesuan lagun izatea besterik ez da.
- Haurra prozesuaren protagonista. Haurraren erritmo, garapen eta indibidualtasunarekiko errespetua.
- Beste eskola bat posible da.
- Pedagogia "berriak". Montessori, Freinet, Paulo Freire, Ivan Illich. Neill.
- Sistemaz kanpoko eskola eredu ezberdinak: Summerhill, Waldorf, Montessori, Paideia, Eskola demokratikoak, eskola txikiak. Eskola eredu aldaketan duten errealitateak.
- Euskal Herriko eskola alternatiboak.
- Sistema barrenean ere, iraultza posible.

-Irakaslea:

- Ane Ablanedo Larrion. Euskara eta Literatura irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Psikoterapia eta Prebentzioan aditua, "Hazkuntza laguntzeko ikastaro"en koordinatzailea. UEUKidea.

Transmedia kontakizuna. Komunikazio esperimenduak

09:30-11:00

Irrien Lagunak Kluba.

Irakaslea: Joseba Mirena Agirretxe Kerexeta. "Porrotx" (1964, Lasarte-Oria) Magisteritzan diplomatua eta pailazoa.

11:30-12:30

Aske Gunea.

Irakasleak: Lander Arbelaitz Mitxelena. (Donostia, 1985) Argiako kazetaria eta Aske Guneako Komunikazio taldeko kidea.

Beldur barik.

Alixé Rodríguez Gil. Kazetaritzan lizentziaduna. Emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunerako masterra.

12:30-13:30

Transmedia nazioarteko ikuspegitik.

Irakaslea: Aiala Fernández Abalde. Euskadiko Ikusentzunezko Klusterrean nazioartekoratzeko arduraduna.

Lidergoia, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



09:00-13:00

- Enneagrama teknika.
- Enneagrama testen betetzea.
- Auto-ezagupena.

udako
euskal unibertsitatea 15:00-17:00

- Dinamika praktikoa "9 txapelen jokoa". Aginte koadro pertsonal bat eratzea du helburu.

-Irakasleak:

- Jabier Lertxundi. Ekonomian doktorea eta Soziologian lizentziatua. SPRI y EUSKALIT-ek bultzatutako proiektu berritzaileak gauzatzeko aholkulari homologatua. Itzarri Consulting-eko aholkularia.
- Ohiane Eriz Egidazu. Enpresen zuzendaritza eta Administrazioan lizentziatuta. Itzarri Consulting-eko kidea.
- Jennifer Soubies. Lidergo eta motibazioan aditua. 5S sistemen ezarpenean homologatua Euskaliten. Itzarri Consulting-eko aholkularia.

17:30-18:30

Hitzaldia: "Lidergoa, emozioak eta fluxua erakundeetan"

Irakaslea: Galder Guenaga. UPV/EHUko irakaslea eta UEUKidea.

Etxebizitzen zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen erabakietara

09:00-10:00

Zaharberikuntza bioeraikuntza irizpideen arabera. Sarrera.

Irakaslea: Inhar Agirrezabal Saenz de Santamaria. IEB-UDL-IBN Bioeraikuntza Masterra, EKIANeko kide. UEUKidea.

10:00-12:30

Geobiologia eta eraikita dauden espazioen harmonizazioa.

Irakaslea: Javier Petralanda. Geobiologoa. Ikerlaria.

12:30-13:30

Zurezko egituren zaharberrikuntza, teknika eta praktika.

Irakaslea: Josu Jauregi Sarasola. Bioetxeko eraikitzaile, zurgin maisu, EKIANeko kide.

Nabigatu Lego NXT robotekin: abante!

09:00-14:00

-Gaiak:

- Zer da robot bat?
- LEGO NXT kaxa.
- Programazio-ingurunea: NXC lengoia.
- Mugikortasuna eta Nabigazioa.
- Sentsoreak.
- Atzeraelikadura: sentsore eta eragileak batera lanean.
- Kontrol-sistemak.
- Amaierako praktika: nabigazio ataza.

-Irakasleak:

- Aitzol astigarraga Pagoaga. Bigarren hezkuntzako irakaslea eta informatikaria. Robotika eta Sistema Autonomoak taldeko kolaboratzailea. UEUko informatika saileko kidea.
- Elena Lazkano Ortega. EHUko Informatika fakultateko irakaslea, Informatikan doktorea eta Robotika eta Sistema Autonomoak taldeko kidea. UEUko informatika saileko kidea.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org

- Ekaitz Jauregi. EHUko ikerlea, Robotika eta sistema Autonomoen elkarteko kidea.

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI41](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**